## 6.3. ETXEBIZITZA ALOKAIRUA ORDAINTZEKO DIRU LAGUNTZAK GAZTEENTZAT ARAUTZEN DUTEN OINARRI ARAU ESPEZIFIKOAK

### 1. Xedea

Diru laguntza hauen xedea da Arrasateko 18-35 urte bitarteko gazteei etxebizitza alokairua ordaintzen laguntzea, emantzipazio bidean laguntzeko eta etxebizitza alokairua sustatzeko.

### 2. Bete beharreko baldintzak.

### 2.1. Alokairuaren inguruko baldintzak.

Alokatutako etxebizitza eskatzaileen ohiko egoitza izan behar da eta alokairu kontratuak gutxienez 12 hilabeteko iraupena izan beharko du; tarte horretan, gainera, oinarri hauetan zehaztutako baldintza guztiak mantendu beharko dira.

Etxebizitza alokairuaren prezioa, gehienez, hileko 600 €koa izango da, eranskinak barne.

Alokairutik edo diruz lagundu daitekeen kontzeptutik kanpo gelditukо dira garaje, komunitate eta administrazioko gastuei dagozkienak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko zenbateko finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo komunitate gastuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude, eta ez bada aurkezten horietako

## 6.3. BASES ESPECÍFICAS REGULADORAS DE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A JÓVENES PARA EL PAGO DE ALQUILER DE VIVIENDA

### 1. Objeto

El objeto de estas subvenciones es ayudar a pagar el alquiler de vivienda a jóvenes de Arrasate, de edad comprendida entre 18 y 35 años, para ayudarles en su proceso de emancipación, y promover el alquiler de vivienda.

### 2. Requisitos a cumplir.

### 2.1. Requisitos relativos al alquiler.

La vivienda alquilada deberá ser la residencia habitual de las personas solicitantes y el contrato de alquiler deberá tener al menos una duración de 12 meses; en dicho periodo de tiempo, además, deberán mantenerse todas las condiciones especificadas en las presentes bases.

El precio del alquiler de la vivienda, como máximo, será de 600 euros, incluidos los anexos.

Quedarán fuera del alquiler y de los conceptos subvencionables el garaje, los gastos de comunidad y los de administración, así como los que puedan generarse en concepto de contribución o impuestos, incluso en el caso de que fueran incluidos expresamente en el contrato correspondiente.

De la cuota mensual del alquiler se restará un importe fijo de 30 euros por los gastos de garaje o comunidad descritos en el párrafo anterior, si estuviesen incluidos en el contrato de alquiler y si no se presentase justificación

bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik.

expresa del coste mensual de cada uno de ellos.

**2.2. Eskatzaileek bete beharrekoak.**

**2.2. Requisitos a cumplir por las personas solicitantes.**

Laguntza hauek jaso ahal dituzte eskaera aurkezten denetik hasita eta diruz lagundu daitekeen epe osoan, ondorengo baldintza hauek betetzen dituztenak:

Estas ayudas pueden ser percibidas desde la presentación de la solicitud y a lo largo de todo el periodo subvencionable, por quienes cumplan los siguientes requisitos:

a) Norbanakoen kasuan, 18 eta 35 urte bitarteko adina izatea.

a) En el caso de solicitudes individuales, tener una edad comprendida entre 18 y 35 años.

b) Bizikidetza unitateen kasuan, gutxienez bikotekide batek izan behar du 18 eta 35 urte bitarteko adina.

*Diru laguntza hauei dagokienez, bizikidetza unitategatik ulertuko da bikote bat, kide biak adinez nagusikoak, euren kargura adin txikikoak izan ala ez, edo pertsona bakarra adin txikikoak bere kargura dituena.*

b) En el caso de solicitudes formuladas por unidades de convivencia, al menos una de las personas integrantes de la misma deberá tener entre 18 y 35 años.

*En lo referente a estas subvenciones, por unidad de convivencia se entenderá una pareja, ambos integrantes mayores de edad, pudiendo tener o no menores de edad a su cargo, o una única persona con menores de edad a su cargo*

c) Eskatzaileak edo bizikidetza unitateko kideetatik inork ez izatea beren jabetzan etxebizitzarik, herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxe bizitza baten edo batzuen titularkide diren kasuetan izan ezik, baldin eta titularkidetasun horren portzentajeak ez badu %50 gainditzen eta etxebizitzetako partaidetzen balio katastrala 75.000 eurotik gorakoa ez bada.

*Hala ere, laguntza eskatu ahal izango dute etxe-bizitza baten jabe %50ean baino gehiagoan diren herritarrek, salbuespen egoeran baldin badaude eta etxebizitza hori legez erabili ezin badute.*

c) Ni la persona solicitante ni ninguno de los miembros de la unidad de convivencia podrán tener vivienda alguna de su propiedad, excepto en los casos en que sea titular de una vivienda o varias obtenidas por herencia o donación, siempre que el porcentaje de cotitularidad no supere el 50% y el valor catastral de las participaciones de las viviendas no sea superior a 75.000 euros.

*No obstante, podrán solicitar la ayuda las personas que sean propietarias de una vivienda en más del 50%, si se encuentran en situación de excepción y no pueden utilizar legalmente dicha vivienda.*

d) Diru laguntzen onuradun diren bizikidetza unitateko pertsona guztiak erroldatu beharko dira diru laguntza jasoko duen etxebizitzan eta datu hau diru laguntza jaso baino lehen

d) Todas las personas de la unidad de convivencia deberán empadronarse en la vivienda para cuyo alquiler se recibirá la subvención y este dato deberá ser

egiaztatu beharko dute. Halaber, kontratua hasi baino lehenagoko datarekin kontratuaren titular ez diren pertsonak baleude etxe bizitzan erroldatuta, etxebizitzaren jabeak erroldan baja eskaera egin beharko du pertsona horientzat.

verificado antes de percibir dicha subvención. Asimismo, en caso de que con fecha anterior al inicio del contrato estuviesen empadronadas en la vivienda personas no titulares del mismo, el propietario o propietaria de la vivienda deberá solicitar la baja en el padrón de dichas personas.

e) Gutxienez bizikidetza unitateko pertsona bat Arrasateko herrian erroldatua egon izana 10 urtetan, edota azken 2 urteetan etenik gabe, eskaera aurkezteko unean.

e) Al menos una persona de la unidad de convivencia deberá haber estado empadronada en Arrasate durante 10 años, o bien durante los dos últimos años de forma ininterrumpida, en el momento de la presentación de la solicitud

f) Diru sarrerak tarte hauen barruan egon beharko dira:

*- 3.000 - 28.000 € gordin urtean eskatzailea pertsona bakarra bada.*

*- 3.000 - 39.000 € gordin urtean, eskatzailea bizikidetza unitate bat bada.*

f) Los ingresos deberá estar comprendidos dentro de estos intervalos:

*- 3.000 - 28.000 € brutos al año, si es una sola persona quien solicita la ayuda.*

*- 3.000 - 39.000 € brutos al año, si es una unidad de convivencia quien la solicita.*

g) Diru sarreren osaketari dagokionez, amaitutako azken zerga ekitaldiko kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa ezin izango da urtean 600 eurotik gorakoa izan.

g) Respecto a la composición de los ingresos, la cuantía de los rendimientos brutos procedentes de rentas de capital del último ejercicio fiscal vencido no podrá ser superior a 600 euros anuales.

h) Etxebizitza partekatzen duten gazte guztiak izan daitezke onuradun, baldin eta errentamendu kontratua denek sinatzen badute eta gainontzeko baldintza guztiak betetzen badituzte. Kasu honetan, eskaerak banan banan aztertuko dira eta alokairuaren prezioa konputatuko da kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta.

h) Todas las personas jóvenes que compartan la vivienda pueden ser beneficiarias, si el contrato de renta es firmado por todas ellas y si cumplen todos los demás requisitos. En este caso, las solicitudes se analizarán individualmente y el precio del alquiler será computado prorrateado entre todos lo que hayan formalizado el contrato.

i) Bizikidetza unitateko kide guztiek Arrasateko Udaleko zerga, tasa eta zehapenen

i) Todos los miembros de la unidad de convivencia estarán al día en el pago de

ordainketa egunera izan behar dute.

j) Onuradunaren eta errentatzailearen artean ezin izango da familia loturarik izan odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.

*Edozein kasutan, onuraduntzat jotzeko, Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan, eta Arrasateko Udaleko diru laguntzak emateko ordenantza arautzaileetan ezarritako baldintzak bete izana egiaztatu beharko da.*

impuestos, tasas y sanciones.

j) Entre la persona o personas beneficiarias de la subvención y la parte arrendataria no podrá haber ningún vínculo familiar hasta un segundo grado de consanguinidad o parentesco.

*En todo caso, para ser consideradas beneficiarias, deberán acreditar el cumplimiento de los requisitos establecidos en el art. 13 de la Ley General 38/2003 de Subvenciones y en los art.s 18 al 29 del Real Decreto 887/2006, y en las ordenanzas reguladoras de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Arrasate.*

### 2.3. Etxebizitzek bete beharreko baldintzak.

Alokatutako etxebizitzek Arrasateko udalerrian kokatuta egon behar dute eta dagokien bizigarritasun baimena izan. Horrez gain, ondorengo baldintzak izan behar dituzte:

a) Erabiltzeko moduan dagoen sukaldea, elikatze iturri elektriko edo gasezkoa duena, eta behar bezala hornitua.

b) Dutxa edo bainuontzia duen bainugela.

c) Erabiltzeko egoeran dagoen ur bero sistema, bainugelara eta sukaldera zerbitzuarekin.

d) Erabiltzeko egoeran dagoen 220 volt-eko instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin.

e) Ur edangarriaren hornidura.

f) Sare orokorrera isurketa duen saneamendua.

g) Kalerako aireztatzea.

### 2.3. Requisitos que deberán cumplir las viviendas.

Las viviendas alquiladas deberán estar ubicadas en el municipio de Arrasate y disponer de la correspondiente autorización de habitabilidad. Además, habrán de cumplir los siguientes requisitos de habitabilidad:

a) Cocina en estado de uso, con fuente de alimentación eléctrica o de gas adecuadamente equipada.

b) Cuarto de baño con ducha o bañera.

c) Sistema de agua caliente en estado de uso, con servicio al cuarto de baño y a la cocina.

d) Instalación eléctrica en uso a 220 voltios, con su boletín correspondiente.

e) Suministro de agua potable.

f) Saneamiento con vertido a la red general.

g) Ventilación a la calle.

**3. Baztertzeak.**

Diru laguntzaren esparrutik kanpo geldituko dira ondoko egoera hauetan aurkitzen diren etxebizitzak:

a) Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.

b) Berrakurak.

c) Logelen alokairuak (logela eskubidea).

d) Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.

e) Bizigune programaren barruan alokatutako etxebizitzak.

f) Hilean 600 €ko zenbatekoa (eranskinak barne) gainditzen duten alokairuko etxebizitzak.

g) Urte bete baino iraupen txikiagoa duten alokairu kontratuak.

**3. Exclusiones.**

Quedarán fuera del ámbito de subvención las viviendas que se encuentren en alguna de las siguientes circunstancias:

a) Viviendas de protección oficial de promoción pública.

b) Realquileres.

c) Alquileres de habitaciones (derecho de habitación).

d) Locales utilizados como vivienda.

e) Viviendas alquiladas dentro del programa Bizigune.

f) Viviendas de alquiler que superen el importe de 600 euros mensuales (incluidos anexos).

g) Contratos de alquiler de duración inferior a un año.

**4. Aurkeztu beharreko agiriak.**

Agiri hauek aurkeztu beharko dira laguntza hauek eskatzeko:

a) Eskabide-orria, behar bezala beteta eta sinatuta.

b) Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren Nortasun Agiriaren edo egoitza txartelaren fotokopia.

Adin txikikorik balego, edo senidetasuna egiaztatzeko, Familia Liburuaren fotokopia ere

**4. Documentación a presentar.**

Para solicitar estas ayudas, deberá presentarse la siguiente documentación:

a) Impreso de solicitud, debidamente cumplimentado y firmado.

b) Fotocopia del DNI o tarjeta de residencia de cada una de las personas demandantes de la ayuda.

En el caso de existir menores de edad, o para acreditar la filiación, se aportará además fotocopia del Libro de Familia.

aurkeztu beharko da.

c) Etxebizitzaren alokairu kontratuaren kopia, indarrean dagoena eta diruz lagundu daitekeen epe barnekoa.

d) Kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.

e) Estatu mailan etxebizitzaren jabe ez izatearen ziurtagiria, laguntza eskatzen duten 18 urtetik gorako kide guztiena, jabetza erregistroak igorria, laguntza eman baino gehienez 15 egun lehenagokoa.

f) Etxebizitza baten titularkide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:
- Herentzia kasuan, herentziaren onarpen agiria eta etxebizitza partaidetzaren eskritura.
- Dohaintza kasuan, dohaintza eskritura.

g) Bizikidetza unitateko kide guztien aurtengo diru sarreren egiaztagiriak:

- Lan-bizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorria.
- Azkeneko 3 hilabeteetako diru-sarreren frogagiriak.
- PFEZ aitortzeko derrigortasuna duenak edo dagoeneko aitortu duenak, honakoak aurkeztu beharko ditu:
  - Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela eta, betetako azken zerga ekitaldian aurkeztutako aitorpenaren fotokopia eta horren jatorrizkoa, biak erkatzeko, eskaera hau aurkezteko

c) Copia del contrato de alquiler de la vivienda, vigente y dentro del plazo susceptible de subvención.

d) Documento acreditativo de la titularidad de la cuenta corriente.

e) Certificado de no disponer de vivienda en propiedad a nivel estatal de todas las personas mayores de 18 años que soliciten la ayuda, emitido por el registro de la propiedad como máximo 15 días antes de la concesión de la ayuda.

f) En caso de ser cotitular de una vivienda, documentación a presentar:
- En caso de herencia, aceptación de herencia y escritura de participación.
- En el caso de donación, escritura de donación.

g) Documentos acreditativos de los ingresos del año en curso de todos los miembros de la unidad de convivencia:

- Certificado de la vida laboral, expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social.
- Justificantes de los ingresos de los últimos 3 meses.
- Quien tenga la obligación de declarar o haya declarado el IRPF, deberá presentar la siguiente documentación:
  - Fotocopia, junto al original para su cotejo, de la declaración del IRPF presentada en el último ejercicio fiscal vencido en el momento de la presentación de esta solicitud.
  - En el caso de percibir, además,

unean.

- Gainera zergapekoak ez diren prestazioak jasoko balira, prestazio horien ziurtagiria.

- PFEZ aitortzeko derrigortasunik ez duenak honakoak eman beharko ditu:

  - Kasu guztietan, ekitaldi horretan (eskaera hau aurkezteko unean betetako azken zerga ekitaldia) PFEZ aitorpena aurkezteko derrigortasunik ez izatea egiaztatzen duen ziurtagiria, Foru Ogasunak emana.

  - Besteren konturako langileen kasuan, kontzeptu guztiengatik jasotako diru sarrera gordin guztiei buruzko dokumentua, ekitaldi horri buruzkoa eta enpresak edo enplegu emaileak emandakoa.

  - Pentsiodunen edo bekak, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenen kasuan (Gizarte Ongizateko laguntzak barne), ekitaldi honetako laguntza horien ziurtagiria.

h) Administrazioarekin eta Gizarte Segurantzarekin bete beharrekoetan egunera dagoela egiaztatzea.

Gizarte Segurantzaren ondoriotarako onartuko da zinpeko adierazpena, norbere konturako langileen kasuan izan ezik.

i) Zinpeko aitorpena, beste diru sarrera batzuk

prestaciones no contributivas, certificado de las mismas.

- Quien no tenga obligación de declarar el IRPF deberá aportar la siguiente documentación:
  - En todos los casos, certificado expedido por la Hacienda Foral que acredite la no obligatoriedad de presentación de la declaración del IRPF en dicho ejercicio (último ejercicio fiscal vencido en el momento de presentación de la presente solicitud).
  - En el caso de personas trabajadoras por cuenta ajena, documento sobre la totalidad de los ingresos brutos percibidos por todos los conceptos, correspondiente a dicho ejercicio y emitido por la empresa o parte empleadora.
  - En el caso de pensionistas o personas que perciban becas, prestaciones o subsidios (incluido todo tipo de prestación social), certificado de dichas ayudas correspondiente a dicho ejercicio.

h) Acreditación de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones con la Administración y con la Seguridad Social.

A los efectos de la Seguridad Social se aceptará la declaración jurada, excepto en el caso de personas trabajadoras por cuenta propia.

i) Declaración jurada de la existencia de otros ingresos (indicando el importe) y/o de haber solicitado subvención a otras instituciones; entre otros:

(zenbatekoa adieraziz) badaudela eta/edo beste erakundeetan diru laguntza eskatu dutela adierazten duena. Besteak beste:

- Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren (EPO) onuraduna den ala ez.
- Arrasateko gizarte larrialdietako diru laguntzak.

Udalak egiaztatuko ditu datu aitorpen hauek bere esku dituen datuen bidez.

Eskatzaileek berariazko baimena eman beharko diete Arrasateko udal zerbitzuei, laguntzen onuradun izateko baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 6. artikuluan ezarritakoa betez. Erroldako datuak Udalak jasoko ditu zuzenean.

- Si es o no beneficiaria de la Prestación Complementaria de Vivienda (PCV).
- Ayuda de emergencia social de Arrasate.

El ayuntamiento comprobará estas declaraciones a través de los datos que obran en su poder.

La persona solicitante deberá dar autorización expresa a los servicios municipales de Arrasate para acreditar que reúne todos los requisitos necesarios para ser beneficiaria de las ayudas, a tenor de lo establecido en el art. 6 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal. Los datos de empadronamiento serán recabados directamente por el ayuntamiento.

**5. Eskaerak aurkezteko epea.**

Bi epe aurreikusten dira alokairu kontratua noiz sinatzen den arabera:

a) Diru laguntza deialdia Gipuzkoako Agiri Ofizialean iragartzen den eguna baino lehen alokairu kontratua sinatuta dutenek, BI HILEKO epea izango dute eskaera aurkezteko. Epe honen barruan eskatuz gero, laguntza onartu ahalko litzaieke 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera, data horretarako alokairu kontratua sinatuta baldin bazegoen.

   Bi hilabeteko epe horren barruan eskaera aurkeztu ezean, laguntza onartu ahalko litzateke baina eskaera egunetik aurrera, atzeraeraginik gabe.

b) Diru laguntza deialdia GAOn iragartzen den

**5. Plazo de presentación de solicitudes.**

Se prevén dos plazos en función de la fecha de suscripción del contrato de alquiler:

a) Quienes hayan suscrito el contrato de alquiler previamente al anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de la presente convocatoria de subvención, dispondrán de un plazo de DOS MESES para presentar la solicitud. Si la solicitan dentro de ese plazo, podría aprobárseles la ayuda a partir del 1 de enero de 2017, si para dicha fecha el contrato de alquiler estaba ya suscrito.

   En caso de no presentar la solicitud dentro de dicho plazo de dos meses, la ayuda podría aprobarse pero a partir de la fecha de solicitud, sin retroactividad.

b) Para los contratos de alquiler que se

dataren ondoren sinatzen diren alokairu kontratuetarako, URTE OSOAN eskatu ahalko dira. Kasu honetan ere, eragina izango du eskaera egiten den hiletik aurrera, atzeraeraginik gabe.

suscriban después de la fecha de publicación en el BOG de la presente convocatoria, la subvención se podrá solicitar DURANTE TODO EL AÑO. También en este caso tendrá efecto a partir del mes en que se realice la solicitud, sin retroactividad.

**6. Akatsak zuzentzea.**

Eskaerak edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu barik dagoenean, 10 eguneko epea izango dute interesdunek antzemandako akatsak zuzentzeko, Udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Emandako epea akatsak zuzendu barik igarotzen bada, diru laguntza eskaera ez da onartuko, eta beste izapiderik gabe artxibatu egingo du prozedura.

**6. Corrección de errores.**

Cuando la solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a las personas interesadas un plazo de 10 días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para subsanar los defectos detectados.

Si transcurrido dicho plazo no se subsanan los defectos detectados, la solicitud de subvención no será aceptada y el procedimiento será archivado.

**7. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.**

Gazteriaren administrazio unitateak izapidetuko ditu eskaerak.

**7. Unidad administrativa encarga de la tramitación.**

Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Juventud.

**8. Diru laguntzen zenbatekoa.**

Etxebizitza alokatzeko diru laguntzek ondorengo muga hauek izango dituzte:

a) Zenbatekoa gehienez hileko alokairu prezioaren %50ekoa izango da
b) Hilean 250 € artekoa izan ahalko da etxebizitza bakoitzeko.
c) Gehienez 12 hilabeteko epealdi baterako

**8. Importe de las subvenciones.**

Las subvenciones para el alquiler de vivienda tendrán los siguientes límites:

a) El importe será como máximo el 50% del precio mensual de alquiler.
b) Podrá ser hasta de 250 € al mes por vivienda.
c) La subvención que puede percibirse a través de esta convocatoria será para un periodo

izango da deialdi honen kontura jaso daitekeen diru laguntza; hurrengo urtean deialdia egiten bada, eskaera berri bat egin beharko lukete onuradunek laguntzak jasotzen jarraitzeko aukera izateko.

Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa zehazteko, diru sarrerak kontutan hartuko dira ondoko taula honen arabera:

| ESKATZAILEA | Diru sarrera gordinak | Alokairuaren % | Gehienezko dirulaguntza |
|---|---|---|---|
| Norbanakoa | 25.000,01-28.000 | 20% | 100 € |
| | 22.000,01-25.000 | 30% | 150 € |
| | 20.000,01-22.000 | 40% | 200 € |
| | 3.000-20.000 | 50% | 250 € |
| Bizikidetza unitatea | 33.000,01-39.000 | 20% | 100 € |
| | 30.000,01-33.000 | 30% | 150 € |
| | 26.000,01-30.000 | 40% | 200 € |
| | 3.000-26.000 | 50% | 250 € |

máximo de 12 meses; si el próximo año se realiza una nueva convocatoria, las personas beneficiarias deberán realizar una nueva solicitud para poder seguir optando a estas ayudas.

Para concretar el importe de la subvención, se tendrán en cuenta los ingresos, de conformidad con la siguiente tabla:

| SOLICITANTE | Ingresos brutos | % del alquiler | Subvención máxima |
|---|---|---|---|
| Individual | 25.000,01-28.000 | 20% | 100 € |
| | 22.000,01-25.000 | 30% | 150 € |
| | 20.000,01-22.000 | 40% | 200 € |
| | 3.000-20.000 | 50% | 250 € |
| Unidad de convivencia | 33.000,01-39.000 | 20% | 100 € |
| | 30.000,01-33.000 | 30% | 150 € |
| | 26.000,01-30.000 | 40% | 200 € |
| | 3.000-26.000 | 50% | 250 € |

## 9. Agiri justifikagarriak.

Behin diru laguntza onartuta, dagozkion ordainketak egin ahal izateko, ondorengo egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Alokairu kontratuaren baitan egindako hileko ordainketa agiriak: alokairuaren faktura edo jaso izanaren agiria, gehi ordainagiria.

b) Onuradunak bete beharreko baldintzetan (oinarri hauetako 2. Klausularen 2.2. puntuan jasotakoak) aldaketaren bat izan bada laguntza eskatu zenetik, aldaketa horri dagokion dokumentazio berria aurkeztu beharko du.

## 9. Documentación justificativa.

Una vez aprobada la subvención, para poder efectuar los pagos correspondientes, deberá presentarse la siguiente documentación acreditativa:

a) Justificantes de los pagos de las mensualidades correspondientes del contrato de alquiler: factura del alquiler o documento de acuse de recibo, más recibo del pago.

b) En el caso de que se haya producido algún cambio en la situación de la persona beneficiaria respecto a las condiciones que debe reunir (las recogidas en el punto 2.2. de la cláusula 2 de estas bases) desde que solicitó la ayuda, deberá presentar la nueva

c) Azken ordainketa gauzatu aurretik, onuradunek aurkeztu beharko dituzte 4. Klausularen "g" atalean azaltzen diren dokumentu eguneratuak.

documentación correspondiente a dicha variación.

c) Para que le sea abonado el último pago de correspondiente a esta subvención, la persona beneficiaria deberá presentar actualizados los documentos que se indican en el apartado "g" de la cláusula 4 de estas bases.

**10. Diru laguntzaren ordainketa.**

Diru laguntzaren ordainketa gauzatuko da hileroko maiztasunez, dagozkion ordainagiriak aurkeztu ondoren.

**10. Pago de la subvención**

El pago de la subvención se efectuará mensualmente, una vez presentados los correspondientes justificantes de pago.

**11. Beste diru laguntzekin bateragarritasuna.**

Oinarri hauen arabera emandako diru laguntzak helburu berarekin ematen diren beste diru laguntzekin bateragarri ezinak izango dira.

Laguntza horien eskatzaile gisa, bereziki baztertuta daude Bizigune Programaren bitartez etxebizitza alokatuta duten gazteak.

Salbuespen gisa, laguntza hauen onuradun izan ahalko dira gizarte bazterketa eta muturreko beharrak leuntzeko Arrasateko Udalak emandako bakarkako diru laguntzen onuradun izan daitezkeen gazteak, eta Etxebizitzako Prestazio Osagarria jasotzen dutenak.

Bi kasuetan, alokairurako diru laguntza hauek 8. klausularen arabera lagun daitekeen gehieneko zenbatekora iritsi arteko izaera osagarria izango dute.

Edonola ere, euren eskubideak balioztatu egin beharko dituzte, dagozkien laguntzak eskatuz. Bestela, ezingo dute oinarri hauetan jasotako alokairurako laguntza osagarria jaso.

**11. Compatibilidad con otras subvenciones**

Las ayudas concedidas de acuerdo con estas bases serán incompatibles con otras ayudas destinadas para el mismo fin.

Se excluye expresamente como demandantes de estas ayudas a quienes dispongan de una vivienda alquilada a través del Programa Bizigune.

Como excepción, podrán ser beneficiarias de estas ayudas las personas jóvenes que puedan ser beneficiarias de las ayudas individuales otorgadas por el Ayuntamiento de Arrasate para paliar situaciones de exclusión social y extrema necesidad, y quienes perciban la Prestación Complementaria de Vivienda.

En ambos casos, estas subvenciones para alquiler tendrán carácter complementario hasta llegar al importe máximo de ayuda según la cláusula 8 de estas bases.

En todo caso, tendrán que hacer valer sus derechos solicitando las ayudas correspondientes. De lo contrario, no podrán recibir la ayuda complementaria de alquiler contemplada en estas bases.

**12. Aurrekontua.**

Programa honen bidez deitutako diru laguntzen zenbatekoa 30.000 €koa da, eta “Gazteen etxebizitza alokairuak laguntza programa” kontu sailaren kontura finantzatuko da.

Aurrekontuaren zenbatekoa ez bada nahikoa diru laguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiei erantzuteko, handitu egingo da kopuru hori, udal aurrekontua betearazteko oinarri arauetan kredituak aldatzeko xedatzen diren mekanismoen bidez.

**12. Presupuesto**

El presupuesto para las ayudas convocadas a través de este programa es de 30.000 euros y será financiado con cargo a la partida “Programa de ayudas a jóvenes para alquiler de vivienda”.

En el caso de que dicho presupuesto no sea suficiente para dar respuesta a todas las solicitudes con derecho a subvención, será ampliado a través de los mecanismos establecidos en las bases de ejecución del presupuesto municipal para la modificación de créditos.

**13. Klausula gehigarria.**

Oinarri arau espezifiko hauetan berariaz jasotzen ez diren gai guztietan, Arrasateko Udalaren 2017ko diru laguntzen deialdiaren oinarri arau orokorretan xedatutakoari jarraituko zaio.

Halaber, Diru laguntzei buruzko Udal Ordenantzari, Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorrari eta bat datozen gainontzeko lege xedapenei jarraituko zaie.

**13. Cláusula adicional**

En todo lo no previsto en estas bases específicas, será de aplicación lo dispuesto en las bases generales de la convocatoria de subvenciones del Ayuntamiento de Arrasate para el año 2017.

Asimismo, será de aplicación la Ordenanza Municipal de Subvenciones, Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás normativa vigente aplicable a esta materia.